



HITZAURRE GISA

Belen Uranga

Bat aldizkariko koordinatzailea

Helbide elektronikoa: belen@soziolinguistika.org

Hizkuntzen garapenean hedabideek betetzen dituzten funtzioez asko eta sarri idatzi ohi da. Soziolinguistika teorien baitan berariazko lekua hartu izan du gaiak, eta, zer esanik ez, hizkuntzen kanpo historia aztergai denean. Historia hurbil-hurbila kontuan hartuta, XX. mendeko bigarren erdialdean esate baterako, irratia eta telebista hizkuntzen garapen eta hedapenean izan duten eragina, aurretik nekez irudikatu zitekeenaren tamainakoa izan da. Esan gabe doa, hala ere, eraginaren neurri hori indartzen dela ukipen egoeretako hizkuntzez ari bagara. Garrantzizkoa, jakina, ez da soilik hedabideetan egotea (estandarizazio, ospe eta normalkuntzarentzat); ez egoteak kezkatzen gaitu bereziki, izan ere, komunikabideek transmititu dezaketen hizkuntzekiko aurreiritzi eta ideiak ere, oso kontuan hartzekoa izaten baitira.

Izaten dira, gainera, aldaketarako efektu biderkatzailea duten hainbat aldagai biltzen dituzten momentu zehatzak. Momentu horietan sumatu ohi da, aurreikusi ezin den oholtzara garamatzaten hainbat fenomeno elkartzen direla. Eta nazioarteko hizkuntzalari adituak ari dira jada komunikazioa eta teknologia berriek dakarten edo ekar dezaketen iraultzaz hitz egiten. Tradiziozko hartzen ditugun komunikabideak eta horiek erabiltzeko tresneria informatikoaren inguruko uztartzeaz ari gara, gai bereko bi ertz edo bi multzoren elkargune bailiran.

Eta kezka horri erantzun nahirik BAT Aldizkariaren 66. zenbakian teknologia berriak eta euskara gaiaren inguruko artikulua argitaratu eman genituen duela hilabete batzuk. Hari jarraiki, 68. zenbaki honetan (Erramun Baxoki omenezko zenbakia tartekatuz) hedabideen inguruan arituko gara *Hedabideak eta euskara-plangintza* izenburuko dossier honetan.

Hiru atal bereizi ditugu. Lehenean, *euskal komunikabideen egoeraren* inguruko hiru artikulua bildu ditugu. **Javier Díaz Nocik** idatzizko zein ikus-entzunezko komunikabideekin batera, azken 15 urteetan internetek izan duen garapenez aritu

da. Egileak ziberkomunikabideen ezaugarriak aztertuz, edizio digitalaren ezaugarriak, euskalkien presentzia eta ziberespazioan euskal komunikabideak nola kokatzen direnari buruzko ideiak ekarri ditu aldizkarira. Egilearen ustean euskarazko kazetaritzaren hazkundea tokian tokiko prentsaren eta interneten garapenaren bidetik etorriko da.

Josu Amezagak eta **Edorta Aranak** sinatzen duten lanean digitalizazioaren garapenak euskarari zer-nolako baldintza eta aukerak emango dizkioten aztertzen da. Horretarako, ETB sortu zen unetik hona, haren kate biek euskarari buruz izan dituzten planteamendu teorikoak eta jardun errealak kritikoki aztertu eta baloratu dituzte. Eskarmentu horretan oinarrituta, eta telebistaren digitalizazioak dakarren aldaketa baliatuta, euskara suspertzea helburu duten hainbat gomendio plazaratu dituzte.

Koldo Mesok euskarazko kazetaritzak interneten duen presentzia aztertzen du ondorengo artikuluan, ziberespazioan lekua hartzeko lanak zertan diren, eta baita aurreikusi daitezkeen joerak ere.

Teoria eta azterketak deituriko atalean hiru artikulua bildu ditugu. **Iñigo Fernándezek** publizitateak euskarazko hedabideetan duen lekua begiratu du, eta arreta berezia jarri dio gai horren inguruko azterketak eta eztabaidak

oso urriak izateari. Bere esanetan, euskal kulturaren eta komunikabideen kontsumitzaile kopurua oso mugatua izateak ezinbestean bultzatu behar luke marketinean eta publizitatean berritzaileak izatera.

Jose Inazio Basterretxeak aztertu duen gaia euskaraz bizi den hizkuntza-komunitatearen eta gizarte-komunikazioaren sektorearen arteko harremana da. Komunikazio sektorea osasuntsua eta normalizatua behar dela planteatzen du, eta, horretarako, modu orekaturen bat aurkitu beharko dela euskaraz diharduten hedabide-mota guztiak uztartzeko; berebiziko garrantzia hartzen duela alor horretan sinergien kudeaketak eta eragileen beregintasan auto-zentratuak.

Sail hau ixteko **Harkaitz Zubirik, Alfredo Retortillo eta Xabier Aierdik** osatutako taldeak euskarazko hedabideak Euskal Autonomi Erkidegoan duten irisgarritasuna aztertu dute ondorengo lanean. Horretarako Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eskatuta hainbat ikerketa aztertu dute. Arreta jarritako gaien artean daude euskal hedabideen irismen txikia eta balizko kontsumitzaile potentzialetik euskal komunikabideak zer ehunekotara heltzen diren. Ondoren, hedapen txikiaren zergatiak hainbat datu eskaintzen dituzte, eskariaren eta eskaintzaren arteko bereizketak kontuan hartuz.

Zenbaki honetako hirugarren atalera *euskarazko hedabideetako esperientzia praktiko* zenbait ekarri dugu. **Iban Arantzabalek** Goienako Ikusentzunezkoaren esperientzia azaldu du, tokian tokiko komunikabideek duten eta izan dezaketen inguruko hausnarketa plazaratuz. **Iñaki Iurrebasok** Zarautzen 2006an buruturiko hedabideen kontsumo-ohituren inguruko ikerketaren berri eman du, telebista eta egunkariaren kontsumoa hizkuntzaren ikuspegitik aztertuz. Emaitzak erakustez gain etorkizuneko erronka ere planteatzen du egileak, esateko, mundu globalizatuan, geroz eta beharrezkoak izango direla euskarazko hedabideen inguruko azterketa eta estrategia bateratuak.

Dossierreko gaiari amaiera **Mikel Arrietak** eman dio. Berria egunkariaren ibilbideari errepa-soa egin dio, eta baita Euskarazko Komunikazio Taldearenari (EKT) ere. EGUNKARIA itxi zute-nez geroztik euskarazko komunikazio eremua osatzea izan du helburu EKT taldeak, BERRIA abian jartzearekin batera. Egilearen ikuspegitik, euskarazko komunikabideen erronka estu lotzen zaio euskararen presentzia handiagotzeari eta euskaraz naturaltasunez irakurtzeko adinako gai-tasuna izateari. Aldi berean, EKTren bi erronken berri ere ematen du: proiektu berriak martxan jar-tzea, eta euskarazko komunikabideen arteko elkarlana sustatzea.

GUREAN atalera **Nekane Goikoetxeak** ida-tziriko artikulua dakargu. Bertan, Euskal Autono-mi Erkidegoan D ereduko ikasleek ezagutzen dituzten hiru hizkuntzen arteko elkar eragina aztertzen da, hizkuntzen tipologia, hizkuntzen estatua eta bigarren hizkuntzaren (2H) garapen maila kontuan hartuta.

Kike Amunarrizek gazte hizkeren nolakota-sunak aztertu ditu atal honetako bigarren artiku-luan. Kontuan hartzen du internetek, digitaliza-zioak eta telefoniaren garapenak hizkuntzaren erabilpenean duten eragina, eta ondorioz, hizke-ra-mota desberdinen garatzea, batez ere maila idatzian. Sortzen ari diren hizkera berrien nolako-tasunak erakustez gain, euskalkien lekua, eus-kalkien eta batuaren arteko harremanak eta erda-ren lekua ere aztertzen ditu egileak.

Zenbaki honen amaieran bi ekarpen:

Pablo Suberbiolak **Jasone Cenoz** irakasleak koordinatu eta kudeatu duen *Language, Culture and Curriculum* nazioarteko aldizkariaren 21. zen-bakiari buruz egin du aipamena (2008ko maiatze-an argitaratua). Argitalpenean euskarazko irakas-

kuntza-sistemari eta bere emaitzei eskainitako artikulua biltzen dira, arreta berezia jarriz irakas-kuntza-sistema horren emaitzei eta horien gaine-an egindako ikerketei. Bere helburua, hortaz, nazioartean euskal irakaskuntzaren emaitzak eza-gutzero ematea da.

Amaitzeko. **Hausnartu Euskal Soziolinguis-tika Sariari** dagokionez, gogora ekarri nahi genu-ke Soziolinguisitika Klusterrak antolatu duela Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin sarietarako deialdi hori. Helburua euskal soziolin-guisitika teoriko edota metodologikoaren garape-na eta berrikuntza izanik bost sari banatuko dira. Lanak aurkezteko epea 2008ko urriaren 1ean itxi zen eta epai-mahaiaren erabakia azaroaren amaie-ran emango da aditzera. Lan sarituak BAT Aldiz-kariaren 69. zenbakian argitara emango dira, 2008ko abenduan.■